

5. ADITZAREN ASPEKTUA ORAINALDIAN II

Jarri aditza dagokion aspektuan

1. Berak hiriko kale guztiak (EZAGUTU) EZAGUTZEN DITU
2. Orain 25 urte dauzka eta 36 urterekin lana (UTZI)
3. Nik kristoren jipoiak (EMAN)
4. Zuk arrain zopa egiten (IKASI)
5. Haiek datorren urtean beharbada, jatetxe bat (IREKI)
6. Bere eskuak ez dira trebeak eta normalean ez (GIDATU)
7. Bere lanbidea ez (IZAN) batere arriskutsua.
8. Zuek 18 urterekin (HASI) gurpilak aldatzen.
9. Nik normalean ez gauez (LAN EGIN)
- 10 Gauero alde batetik bestera (IBILI) zu
11. Hark lehen azkazalak (JAN),

12. Zuek datorren urtean Euskal Herriko sagardotegietan (AFALDU)_____

13. Haiek oraindik ez (IRABAZI) _____

14. Lan egiten duenean jendearekin asko (HITZ EGIN)_____

15. Zuk lehen oso ongi (ZAINDU)_____

16. Zuek ez _____(LAN EGIN) praka luzeekin

17. Gu oraintxe goilarekada bat (USAINDU)_____

18. Gu oraintxe ez (ETORRI)_____

19. Gizon honek, egunero, 8 ordu _____ . (LAN EGIN)

20. Katuak gaur, bi sagu _____ (HARRAPATU)

21. Zuk egunero kafesnea _____? (GOSALDU)

22. Guk gero partidua _____, ezta? (JOKATU)

23. Zu orain, ariketak _____? (EGIN)

24. Ume hauek, normalean, ez _____gozokirik (JAN)

25. Zu orain andregaia ikustera _____? (JOAN)

26. Gaur goizean butaneroak ez _____ bonbonarik _____ (EKARRI)

27. Ni egunero _____ berandu. (OHERATU)

28. Nik bihar ez _____ kaseta klasera. (ERAMAN)

29. Aizu, mahai gainean _____ artaziak. (EDUKI)

30. Irakasleak orain azterketak _____ (PRESTATU)

31. Aizue, zuek _____ nire komikiak? (HARTU)

32. Zuk _____ komuneko ispilua? (ZIKINDU)

33. Zuek larunbatetan zer _____ herrian? (EGIN)

34. Duela bi ordu _____ ni berarekin. (EGON)

35. Itxaron apur bat, oraintxe _____ ni ere. (JOAN)

36. Baina, baina, zertan _____ ume horiek nire gelan? (IBILI)

37. Nork _____ zigarrokin horiek eskaileratan? (BOTA)

38. Ane, normalean, ez _____ klasera _____ (ETORRI)

39. Bihar Jon Donostiara (JOAN) _____

40. Lehen zuk pelikula (IKUSI) _____

41. Orain mutilak liburua (IRAKURRI) _____

42. Zuek gaur goizean kafesnea (GOSALDU) _____

43. Haiek egunero entsalada (JAN) _____

44. Gero mutilak etxeko lanak (EGIN) _____

45. Neskak lehen gona gorria (EROSI) _____